

## Parte hartzeko oinarriak – Lehiaketaren araudia

Lagun agurgarriak:

Honen bitartez, **GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIAN** parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. **Larunbatean, ABUZTUAREN 11n, izango da, 16:30ean.**

### **ANTOLATZAILEAK:**

Getxoko IX. Igerialdia gure klubak antolatzen du, Getxo Igeriketa Waterpolok, eta Getxo Kirolak, Kantxa Kirol Moda, Euskaltel, DEIA, Radio Popular eta Bizkaia Irratia ekimenaren kolaboratzaile izango dira.

### **DATA:**

**Egun bakarra: 2018ko abuztuaren 11n, larunbatean, 16:30ean**

### **IZENA EMATEKO:**

Getxo I Wen webgunearen bidez eman behar da izena: [www.getxoiw.com](http://www.getxoiw.com).

Kontu-zenbakia:

- La Caixa: ES02 2100 6445 3721 0010 1480
- BBK: ES45 2095 0307 1438 3053 3538

Onuraduna: Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarte.

**Ordainketaren kontzeptuan igerilariaren izena eta abizena adieraztea nahitaezkoa da**, emango den txanoan bere zenbakia jarri ahal izateko. Txanoak probaren egunean bertan jaso ahalko dira, turismo bulegoaren alboan, Ereagako hondartzan.

### **PREZIOAK (proba txip baten bidez kontrolatuko da, txanoarekin batera emango dena)**

**Federatutakoak** (soilik igeriketa edo waterpoloko federazio lizentzia daukatenak)

- Promesak (txikiak): 5€
- Absolutuak: 16 € (federatuta dauden beteranoak ere talde honetan sartuko dira)

### **Herrikoikiak:**

- Promesak (txikiak): 10€
- Absolutuak: 21€
- Betteranoak: 21 € (1967. urtekoak eta lehenagokoak)

**Izena 2018ko abuztuaren 9a baino lehen eman beharko da, osteguna, 12:00ak baino lehen.**

## GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIA

**IZENA PROBAREN EGUNEAN EMANEZ GERO, PREZIOA BIKOITZA IZANGO DA KASU GUZTIETAN.**

Federazioaren lizentzia daukaten parte hartzaileek, txanoak jasotzeko unean egiaztatu beharko dute.

Beste edozein gai argitu edo galdetzeko, jar zaitez gurekin harremanetan helbide elektronikoko hauen bitartez: [urkogiw@gmail.com](mailto:urkogiw@gmail.com) eta [getxoibke@gmail.com](mailto:getxoibke@gmail.com).

## GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIA

DATA: 2018 abuztuak 11

### KATEGORIAK:

- PROMESAK: 2005 eta ondorengo urteak, mutilak; 2006 eta ondorengo urteak, neskak.
- ABSOLUTUA (federatuak eta herrikoia): 2004 eta aurreko urteak, mutilak; 2005 eta aurreko urteak, neskak.
- BETERANOAK: 1968 eta aurreko urteak (gizonak eta emakumeak)

### SARIAK:

Kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuek saria jasoko dute.

### TXANOAK JASOTZEKO LEKUA

- Ereagako hondartza (turismo bulegoaren aurreko plaza), probaren egunean 14:00etatik aurrera.

### JANTZIAK


Soilik ohiko bainujantziak erabili ahalko dira; indarrean dagoen FINA araudia errespetatzeko arduradunak probako epaileak izango dira. **IZENA EMAN ETA SAILKAPENEAN PARTE HARTU NAHI EZ DUTENEN KASUAN, IGERIALDIAN NEOPRENOAREKIN PARTE HARTZEKO BAIMENA EMANGO ZAIE.**

Izena ematerakoan parte hartzaile bakoitzari esleitutako txanoa nahitaez erabili beharko da igerialdia osoan zehar.

### ORDUTEGIAK-IBILBIDEA


IGERIALDI TXIKIA: 16:00 (300 m-ko distantzia, Ereagako hondartza – Ereagako hondartza)

## GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIA



### ARRIGUNAGA-EREAGA IGERIALDIA: 16:30 (Distantzia: 2.700 metro)

- 14.00: Txano banaketa eta markajea
- 15.30: Autobusak abiatzea, kirolariak Arrigunagako hondartzara eramateko
- 16.30: Arrigunagako hondartzatik abiatzea



## **ONDASUNAK**

15:00etatik aurrera parte hartzaileen ondasunak antolatzaileek emandako poltsa batean utzi ahalko dira; gogoan hartu behar da antolatzaileen zaintzapean egongo diren arren, antolatzaileek ez dutela poltsan utzitako objektuen ardurarik izango.

## **PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK / GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIKO DATUEN TRATAMENDUA**

Ekitaldi honetan parte hartzen duen kirolariak (adingabeen kasuan, gurasoek edo tutore legalak ordezkatzeko dute kirolaria) GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIAN parte hartzeko sasoi onean dagoela adierazten du. Parte hartzeak berez dakartzan arriskuak onartzen ditu eta, ondorioz, bere egiten ditu dagozkion lege-ondorioetarako.

Halaber, GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEAri baimena ematen dio igerialdiko bere parte-hartzea osorik edo zati batean grabatzeko. Horrez gain, bere irudia euskarri guztietan (irratia, prentsa, bideoa, argazkia, DVDa, Internet, kartelak, komunikabideak eta abar) zabaltzeko baimena ematen du, eta irudi horren ustiapen komertziala eta publizitarioa egiteko eskubide guztiak lagatzen ditu; halaber, ez du ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

Ekitaldi honetan parte hartzen duen kirolaria jakitun geldituko da eta bere baimena emango du jasotako datu pertsonalak GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEAren fitxategi automatizatuarekin tratatuak izan daitezkeen. Azken hori izango da fitxategien arduraduna eta erakunde titularra. Horretarako, GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEA baliabide tekniko egokiak jarriko ditu izena eman duenaren eskutan, hartara, Datuak Besteko klausula eta gainerako informazio aipagarria ikusi ahal izan ditzan; hori guztia Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta lege hori garatzen duen araudia onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren arabera.

Halaber, datu pertsonalak honako helburu hauek betetzeko jaso eta tratatuko direlaren jakitun geratzeko da: GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEAren edo eskubidea izan dezakeen erakundearekin ezarritako harremana mantentzea; izena eman dutenek erabiltzen dituzten zerbitzuen kudeaketa, administrazioa, prestazioa, hedapena eta hobekuntza bultzatzea; zerbitzu horiek izena eman dutenen lehentasunetara eta zaletasunetara egokitzea; zerbitzuen erabilera aztertzea, eta zerbitzu berriak diseinatzea. Izena ematen dutenek zerbitzuen eguneraketan inguruko informazioa jasotzeko baimena ematen dute, baita GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEA antolatutako ekitaldi eta zerbitzuen inguruko informazio tekniko, operatiboa eta komertziala bide elektronikoa nahiz tradizionalen bidez jasotzeko baimena ere.

Era berean, GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEA antolatutako ekitaldiei buruzko informazioa jasotzeko baimena ematen du. GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEAri baimena ematen diote egungo eta etorkizuneko babesle eta kolaboratzaileei eta Getxoko Udako Igerialdiaren etorkizuneko antolatzaileei datuak jakinarazteko. Datu pertsonalak jaso eta tratatzearen beste helburu bat inkesta-formularioak bidaltzea da. Kirolaria ez dago erantzutera behartuta.

Izena eman duen kirolariak bere datu pertsonalak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu ditzake. Eskubide horiek baliatzeko mezu elektronikoa bat bidali beharko du helbide elektronikoa honetara: [getxoibke@gmail.com](mailto:getxoibke@gmail.com); horrez gain, GETXO IGERIKETA BOLUE KIROLO ELKARTEAri idazki bat bidal diezaiotke helbide honetara: [...] kalea, (48992) Bilbo.

## **GETXOKO UDAKO IX. IGERIALDIA**

Proba egiteko eguraldi txarra baldin badago eta/edo igerilarien ongizatea arriskuan jartzea badakar, antolatzaileek proba bertan behera uztea erabaki dezakete. Kasu horretan, antolatzaileek inskripzioaren zenbatekoaren erdia itzuliko diote kirolariari edo hurrengo edizioan parte hartzeko plaza erreserbatzeko aukera emango diote.

Araudi hau interpretatzeko zalantzarik egotekotan, erakundearen iritzia, erabakia eta ustea nagusituko da. Ekitaldi honetan izena ematen duen kirolariak Araudi hau bere osotasunean onartzen du.